



Mancomunidad
Comarca de Pamplona
Iruñerriko
Mankomunitatea

.....
Iruñerriko Mankomunitateko
Batzar Nagusiaren erabakia / Taxi
zerbitzuaren tarifak
.....

2013

353/2012 EBAZPENA, abenduaren 12koa, Turismo eta Merkataritzako zuzendari nagusiak emana, Baterako Taxi Zerbitzurako Iruñerriko Eremuko tarifak onesten dituen 2013. urterako.

Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legearen 40.1 artikulua ezartzen du baterako zerbitzurako eremu bakoitzeko udalei edo toki entitate eskudunari dagokiela hiriko taxi zerbitzuei aplikatu beharreko tarifak onestea. Onespen horretarako beharrezkoa izanen da prezioak indarreko legeriaren arabera baimendutako prezioen araubidearen mende egotea. Onespenaren aurretik, betiere entzunaldia eman beharko zaie taxiaren sektorea ordezkatzeko duten lanbide elkartei eta tokian-tokian erroturik dauden kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkartei.

Foru lege horren xedapen gehigarri bakarrak ezartzen du zer udalerrik osatzen duten Baterako Taxi Zerbitzurako Iruñerriko Eremua eta, orobat, ezartzen du Iruñerriko Mankomunitatea izanen dela horren gaineko toki entitate eskuduna.

Horrekin guztiarekin bat, Iruñerriko Mankomunitateak 2013rako taxi zerbitzuko tarifei buruz Batzar Orokorrek hartutako erabakia aurkeztu du.

Halaber, kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteekin eta taxilarien lanbide elkarteekin 2012ko abenduaren 10ean bildu eta haien iritzia entzun da, eta Taxiari buruzko Foru Legearen 40.1 artikuluan eta Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Legea onesten duen azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren 39.d) artikuluan ezarritakoa bete da.

Ikusirik Turismoa eta Merkataritza Antolatu eta Sustatzeko Zerbitzuak emandako txostena.

Horrenbestez, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuaren egitura organikoa ezarri zuen uztailaren 25eko 67/2012 Foru Dekretuak ematen dizkidan eskudantziak erabiliz,

EBATZI DUT:

1. Baterako Taxi Zerbitzurako Iruñerriko Eremuan honako tarifa hauek onestea 2013. urterako:

a) 1. tarifa: lanegunetan egunez aplikatzekoa (06:00etatik 22:00ak arte) Iruñerriko Baterako Zerbitzuko A eremuan:

-Bandera jaistea: 1,98 euro.

-Egindako kilometro bakoitzeko: 0,93 euro.

-Itxaron ordu bakoitzeko: 18,98 euro.

b) 2. tarifa: lanegunetan egunez aplikatzekoa (06:00etatik 22:00ak arte) Iruñerriko Baterako Zerbitzuko B eremuan, eta asteburuetan, jaiegunetan eta lanegunetako gauetan (22:00etatik 06:00ak arte) Iruñerriko Baterako Zerbitzuko A eremuan:

-Bandera jaistea: 2,95 euro.

-Egindako kilometro bakoitzeko: 1,10 euro.

-Itxaron ordu bakoitzeko: 22,69 euro.

c) 3. tarifa: asteburuetan, jaiegunetan eta lanegunetako gauetan (22:00etatik 06:00ak arte) aplikatzekoa Iruñerriko Baterako Zerbitzuko B eremuan:

- Bandera jaistea: 3,50 euro.
- Egindako kilometro bakoitzeko: 1,45 euro.
- Itxaron ordu bakoitzeko: 29,70 euro.

d) Osagarriak:

- Garraioko geltokietan hasi edo bukatzen diren zerbitzuak:
- Aireportua: 2,40 euro.
- Tren geltokia: 1,00 euro.
- Autobus geltokiaren barnealdea: 0,65 euro.
- Asteburu eta jaiegunetako gauak (00:00etatik 06:00ak arte larunbatetan, igandeetan eta jaiegunetan): 1,20 euro.
- Telefonoz edo antzeko sistema teknologikoen bitartez adostu eta tarifa desberdinen arabera hasten diren zerbitzuak:
- Telefonoz adostua, 1. tarifa: 0,97 euro.
- Telefonoz adostua, 2. tarifa: 1,65 euro.
- Telefonoz adostua, 3. tarifa: 2,20 euro.

2. Jaieguntzat jotzen diren egunak maiatzaren 30eko 453/2012 Ebazpenean 2013rako ezarri diren jaiegunen egutegi ofizialean ageri direnak izanen dira.

Egun horiez gainera, jaieguntzat joko dira Sanferminetako egunak, uztailaren 6tik 14ra bitarte, bi horiek barne.

3. Tarifa horietan sartua da balio erantsiaren gaineko zerga.

4. Tarifa horiek ibilgailuaren barrenean, erabiltzaileak aise ikusteko moduko toki batean, jarri beharko dira, Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legearen 26.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

5. Teknologikoki ahal den guztietan, asteburu eta jaiegunetako gaueko osagarria automatikoki gehituko da bandera jaistearekin batera.

6. Tarifa horiek 2013ko urtarrilaren 1ean hartuko dute indarra.

7. Ebazpen hau igortzea Turismoa eta Merkataritza Antolatu eta Sustatzeko Zerbitzura eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira, behar diren ondorioak izan ditzan.

8. Ebazpen hau Nafarroan dauden taxilarien lanbide elkarteei eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteei jakinaraztea, eta ohartaraztea ebazpenak ez duela administrazio bidea amaitzen eta ebazpen horren kontra gora jotzeko errekurtsioa jartzen ahal dutela, Turismoko, Merkataritzako eta Erakunde Harremanetako kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik aurrera.

9. Ebazpen hau Iruñerriko Mankomunitateari jakinaraztea, eta aditzera ematea horren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzen ahal dela, eskumena duen ordena jurisdikzionalari zuzendua, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean, alde batera utzi gabe Nafarroako Gobernuan alde aurreko errekerimendua egin ahal

izatea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan ezarritako moduan eta epean.

10. Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, denek jakin dezaten. Iruñean, 2012ko abenduaren 12an.-Turismo eta Merkataritzako zuzendari nagusia, Carlos Erce Eguaras.